

# hondo-hondotik

Tomax Karrera

(AAMko kidea)

## Amnistia eta askatasunaren bidean

**G** abon garaiak aukera eskaintzen digu hainbat hausnarketa plaza-  
ratzeko. Aurten, Amnistiaren aldeko mugimenduaren lan esparruan oso gertaera larriak izan dira, eta horietaz guztiez hausnarketa publiko eta politikoa falta izan da euskal gizartean, gure iritzia nolabait bahiturik egon delako. Hasieran, AABRen ilegalizazioaren bitartez eta ondorioz, eta Askatasuna elkartearen jardueren debekuarekin, ondoren. Halere, gero eta beharrezkoagoa da lan esparru hori berreskuratzea. Bestela, estatuen biolentziari anonimato eta inpunitate osoa eskainiko genioke dohainik. Tortura, preso sakabanaketa eta guda zikinean hain adituak diren Frantzia eta Espainiako gobernuek besterik ez zuten beharko. Giza eskubideen defendatzaileok eta estatuen biolentzia pairatu dugunok, giza eskubideen aurkako eraso salaketa iraunkorra bermatu behar dugu, kosta ahala kosta.

Gure historia, garatu dugun borroka, oso aberatsa baita. Orain dela 27 urte jaio zen AAM. Frankismoa hilzorian egonik, errepresioa inoiz baino bortitzagoa zen. Diktadurak ez zuen jarraitzeko gaitasunik, eta errepresioa zen aldarrikapen herritarrak isilarazteko aukerattutako tresna. Euskal Herrian, aldarrikapen garrantzitsuenak amnistia eta autodeterminazio eskubidea izan ziren. Baina frankismotik ateratzeko hemengo batzuek eta Madrilgo indar politikoen negoziatu egin zuten. Herriari sorbalda emanez, posible zena negoziatuz. Autodeterminazioari ez, bestela militarrek altxatuko dira, preso guztiak kalera ez, amnistia ez da posible... Euskal Herriak amnistia eskatzen zuten bitartean, *Nafarroa Euskadi da* eta autodeterminazio eskubidea alda-

rrikatzen zituen bitartean, indultua eta gaur egun indarrean dagoen autonomi estatutua eta Nafarroako amezoramen-  
dua hitzartu zuten Madrileko eta hemengo agintariek.

Ondorioak denok ezagutu eta, era batean edo bestean, denok pairatu ditugu eta pairatzen ari gara. Gatazka politikoa gainditzeko estrategiak aplikatu beharrean, gatazka areagotzeko estrategia aukeratu zuten, hau da, errepresioa, askatasun eta eskubide murrizketa, salbuespen egoera. Gure azken 25 urteetako historia, hain zuzen.

Ipar Euskal Herrian, 1981ean, François Mitterrandek amnistia aplikatu zuen, baina departamenduari uko egin zion. Geroztik, gatazka politikoa areagotu egin da, eta euskal hiritarren aldarrikapenak gero eta era bortitzagoen bitartez galarazi dituzte.

Orain dela 25 urte bezala, gaurko mar-  
ko juridiko-politikoa hilzorian dago, herri gehienok demokrazia sakonagoa eskatzen dugu, herri baten partaideak garelako aldarrikatzen dugu, eta, beraz, gure etorkizuna erabakitzeko ahalmena aldarrikatzen dugu, hots, autodeterminazio eskubidea.

Baina, tematiki, estatuek errepresioaren bitartez erantzuten dute. Demokrazian sakontzeko tresna eta baliabideak jarri beharrean, prozesu demokratikoa oztopatu eta zigortzen dute. 25 urtetan porrot egin duen estrategia politikoa erabiltzen jarraitzen dute. Ondorioak hor daude. Demokrazia sakontzen ez dugun

bitartean, Euskal Herrian dugun gatazka ez dugu inoiz gaindituko.

Errealitateak ikasgai franko uzten digulako. Frankismoaren amaieran bezala, espetxeak beteak, 660 euskal preso politikoa dagoeneko, sakabanatuak eta, kopuru handi batean, bakartuta. Karrketan elkartzeko, eztabaidatzeko eta manifestatzeko eskubideak ukatuak dira. Torturaren erabilpen sistematikoa atzo, gaur bezala. Aurten, Ertzaintzak tortura fisikoen aztarnak utzi ditu hainbat atxiloturengan. Guardia Zibila eraso eta bortxaketa sexualak gero eta gus-  
tukoagoak ditu. Indar armatuen presentzia

gero eta nabariagoa da, euskarak ez du eskubiderik ezagutzen, estatuaren eraso amaigabea dela dirudi... eta, haatik, denok dakigu egungo marko juridiko-politikoa hil zorian dagoela, aldaketa beharrezkoa dela... Baina ez da tresnarik jartzen, ez dira elementu berriak mahai-gaineratzen, eta, denbora galtzen da sufrimendua areagotzen den bitartean, estatuen aurpegi askotariko errepresioari ate eta leiho guztiak zabaltzen zaizkio.

Beraz, nahiz eta inoiz baino preso gehiago egon, nahiz eta sakabanaketa osagarriak inoiz baino era ankerragoan aplikatu, nahiz eta tortura inoiz baino bortitzagoa izan, nahiz eta askatasun eta eskubide demokratikoen egoera larria izan, isilarazten dira, garrantzia kentzen zaie, eta errealitate horiek mozortzen dira. Komunikabide gehienek por-  
taera, gaur egun, orain dela 25 urtekoa bezalakoa da. Demokrazia honen faltsu-

keria agerian uzten duen beste elementua.

Borondate politikorik ez dago estatuaren errepresioari aurre egiteko. Eta EAJ, EA eta EB isildu egiten dira, edota parte hartzen dute estrategia errepresibo horretan. Torturaren aurka ez dute inolako neurririk hartzen, sakabanaketaren aurka ez dute ezer egiten, ilegalizazioen aurka eta gainerako eskubideen erasoaren aurka ez dute inolako urratsik egiten, legedia betetzen dute, hilzorian dagoen legediari amasa emanez... Aldarrikapen herritarrak berriro isilarazi nahi dituzte beste akordio politiko bat lortzeko. Orain dela 25 urte bezala, demokrazia sakondu beharrean, mozorrotu nahi dute. Eta preso politikoen afera, tortura eta indar armatuen gaiak euren agenda politikotik at daude. Sasidemokraziaren txotxongiloak bihurturik, demokrazia espainiar eta frantziarraren tresneria eraginkorra izan nahi dute, bertako labelarekin sortua.

Aldiz, gure ustetan, prozesu politiko horren oinarriek askoz sendoagoak izan beharko lukete. Posibilismo politikoa uxatuz, posibilismoak berak *demokrazia* ez honen mugak erakusten dituelako. Bada garaia euskal demokraziaren oinarriak finkatzeko. Ireki behar dugun prozesu politikoan denok parte hartzeko eskubidea izanen dugu, kanpo injerentziarik gabe. Amnistia eta askatasunaren leloan laburbiltzen direnak. Horretan sinesten dugulako, horrela aldarrikatzen dugu. Urtarrilaren 4an, Donostian, arratsaldeko lau eta erdietan Kursalen hasi eta Easo plazan amaituko den manifestazioan hori egingen dugu. Euskal demokrazian sinesten dugunok euskal hiritar orori parte hartzeko gonbita egiten diogu.

## gogoratu

Joxan Elosegi

### Konplexurik gabe

**L** augarren urtea beteko da honen-  
bestez sail honetan hasi nintzenetik, eta aski da gaurgero. Luzexko iraun dut EUSKALDUNON EGUNKARIK eskainitako plazatzotik zirkinik ere egin gabe ia-ia. Gure historia ttiki eta handiko gertakariak egutegiaren hariari segika gogora ekartzea nuen xede, eta neure ahal apurretatik saiatu nahiz agindutakoa xintxo betetzen. Aski da, ordea, dagoeneko, bete egin naiz gaurgero, buruak ez du ematen, lumak ere nekea du laguntzen.

Gure historiako gaiak... Ez naiz historian aditua, ez sobera ikasia ere, are gutxiago hartan trebatua. Gogoko dut, egia da, iraganari behatzea, garai haietako berri (zaharrak berri) jakitea, haren argitara gure egunetan gertatzen dena ulertzen saiatzea. Atzeak erakusten omen du aurrea dantzatzen. Hala zioten behinik behin gure zaharrek eta aburu horreta-

koa naiz ni ere. Giza izatea ulertzeko modua da historia, modu humanoa inolaz ere, bizitzaren hatsari lotzen gaituen hari horren antzera azaltzen zaiguna: etengabeko emanean, ondoz ondoko jardunean, iraganetik heldu dena eta geroan ere mugarik izango ez duena...

Baina, besteak beste, arma baliotsua da halaber historia, giza multzo eratuek beren burua sendo aurkezteko bideratzen duten arma ahaltsua. Arma gutxi herri ukatuak, herri zapalduak... Horregatik ditugu horrenbeste arazo geure historia itxuratzerakoan. Herri ukatuek ez dute historiari, inperio ukatzaileen osa-

gai gisa dagokiena izan ezik. Egoera honetan, izugarria izan daiteke inposatzen den historiaren eta egiazko gertakarien arteko aldea. Eraginkorra behar du armak eta denak balio du horretarako, baita gezurrak ere.

Subjektiboak dira historia eta kondaira guztiak, bai eta zintzoki objektibo izaten saiatzen direnak ere. Ez naiz salbuespena izan, eta argi utzi nahi izan ditut gauzak hasieratik. Areago, konplexurik gabeko jarrera aldarrikatu nahi izan dut. Zaila izango da aurreiritziak geure burutik gutiz kentzea; askoz zailagoa, oster, dauz-  
kagun konplexuak gainditzea. Hona he-

men, adibide bat: «*La principal defensa de la lengua estuvo sin duda no en la fuerza, sino en la misma debilidad e insignificancia militar y económica del país y de sus gentes. El retraso cultural, en contraste con lo que ocurrió en zonas más progresivas, hizo mucho menos seductora la atracción del latín*». Koldo Mitxelena dixit. Ezaguna da euskararen iraupen historikoari buruz eginitako azalpen hau. Ezdeusak omen ziren euskaldunak, ez omen ziren deus ere, ez omen zuten deus ere, horregatik iraun zuen bizirik haien hizkuntzak. Bitxia benetan, ezdeus haien ahalmena. Egun badakigu, aldiz, Erromako Inperioak euskal lurraldeetan bideratu zuen erromanizazio prozesua bizkorra izan zela, guztizkoa izatera iritsi ez zen arren. *Euskal* gizarte indartsu bati buruz hitz egin beharko genuke, beraz, ez alderantziz. Irtsi da konplexuak, Mitxelenarenak badira ere, geure gainetik kentzeko garaia.